

Zaldibiako Festak 2025

URRIAK 2·3·4·5·10·11

URRIAK 2 osteguna | JAIEN HASIERA

18:30 Festak hasi aurreko **KALEJIRA, HERRIKO GOIZTIRI TXARANGA ETA TXANBOLINTERO TXISTULARI**en doinuekin, **ERRALDOIEK** eta **DANTZARIEK** alaiturik, **PLAZATIK ABIATUTA** herrian barrena.

19:00 **TXUPINAZOA** udaletxeko balkoitik. Aurtengoan **TALO TALDEKO** kideek botako dute festei hasiera emango dien txupina.

Ondoren **ERRALDOIAK, BURUHANDIAK** eta herriko **GOIZTIRI TXARANGA**.

20:00 **MONDEJUA** dastatzeko aukera herriko plazan, ardoz eta musikaz lagundurik. **Pintxoa: 1€**. Bildutako dirua dohaintzan emango zaio **IZAN INURRI ELKARTEARI**, bularreko minbiziaren azterketan laguntzeko.

21:30-00:30 **JOSELU ANAIAK** taldearekin dantzaldia.

URRIAK 3 ostirala

11:00 aurrera Txorotxaragarako girotzea Ausa Gaztelu Guraso Elkartearen eskutik eta **JOLASAK** Gaztelekuak antolatuta, plazan.

12:00-13:30 **TXOROTXARANGA** haurrentzat, plazan hasita.

11:00 **TOKA** plazan, Beti Gazte Elkarteak antolatuta.

12:00 **JUBILATUEN HAMAIKETAKOA** Beti Gazte Elkarteak antolatuta.

16:30 **HAURREN PLAY-BACK JAIALDIA**, Ausa-Gaztelu Guraso Elkarteak antolatuta.

18:00 hasita **GOITIBEHERA JAITSIERA** Urtesabel auzoan, Aldaburutik beherako aldapan, Zaldibiako Gazte Asanbladak sustatuta.

Bukatutakoan **PALESTINAREN ALDEKO EKITALDIA** plazan, Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatuta.

Gauean **KONTZERTUAK** Zaldibiako Gazte Asanbladak antolatuz, Zaldibiako Udalaren laguntzarekin:

22:30 ODEI

00:00 IMUNTZO ETA BELOKI

02:45 DJ TINTZ

BARRAKETAN PREZIO MURRIZTUA egun osoz.

ASKE TALDEAK zapi morea egun osoz janzteko deia egiten du.

URRIAK 4 larunbata | MOZORRO EGUNA

11:00 **BURUHANDIEN KALEJIRA** herriko txistulariek lagundurik.

11:00 aurrera **ARROZ PRESTATZE HERRIKOIA** plazan.

13:00 **MOZORROTUEN BILKURA ETA ARGAZKI GUNEA**, plazan.

14:30 **ARROZ BAZKARI HERRIKOIA** plazan. Norberak egin behar du arroza plazan edo etxetik eginda ekarri. Su txapak eta txotxa Udalak jarriko ditu.

Ondoren **BAZKALOSTE GIROTUA** parte-hartzaileek gidatuta. Taldeek aukera izango dute euren mozorroa erakusteko eta sariak izango dira.

19:30 **DJ REIMY** kalean zehar.

23:00 **GANIBET** taldearen kontzertua

00:00-03:30 **MUGI PANDEROA** taldearekin dantzaldia



ZALDIBIAKO
UDALA

URRIAK 5 igandea

12:00-14:00 **ANIZTASUN FESTA** plazan, Etxekonekok Elkarteak antolatuta. Herrian ditugun kultura ezberdinetako kideek eskainitako dantza, kanta eta janari dastaketa.

Eguerdian **MAIALEN LUJANBIO** eta **UNAI ITURRIAGA** bertsolariak ibiliko dira herrian zehar.

13:00-14:00 Gazte eta helduen **SEGA-PIKATZE TXAPELKETA** Almitza Segaelkarteak antolatuta.

17:30 **DANTZA EMANALDIA** plazan, Iztueta Dantza taldearen eskutik.

Ondoren **HERRI KIROL SAIOA** plazan, Almitza Segaelkarteak antolatuta.

URRIAK 10 ostirala

17:00 **PILOTA ESKOLAKO TXAPELKETAREN FINALAK** Toki Alai pilotalekuan, benjamin, alebin eta infantil mailan. Eguraldi txarra balego Restin izango dira partidak.

Xirika Kultur Elkarteak antolatuta:

19:00 **ELKARRETARATZEA** Euskal Preso eta Iheslari Politikoen eta Palestinaren alde.

19:30 **PATATA TORTILA LEHIAKETAREN** hasiera.

21:00 **TORTILEN AURKEZPENA** eta **AFARIAREN HASIERA**

Afalondoren **BINGOA**

23:30 **ANDONI OLLOKIEGI**rekin kantaldia

XIRIKA ELKARTEAK Xirikako kamixetakin ateratzeko deia egiten du.

URRIAK 11 larunbata | KUADRILLA EGUNA

11:00-13:30 eta **16:30-19:30** **PUZGARRIAK** haur eta gaztetxoentzat Restin.

13:00 **KUADRILEN IRTEERA** plazatik **JUN DA JO TXARANGAREKIN** herriko kaleetan zehar. **ARGAZKI GUNEA** plazan eta bazkalondoren zozketa.

14:30 **KUADRILLEN EGUNeko BAZKARIA** plazan. Txartelak herriko tabernetan daude salgai urriaren 8ra arte.

18:00 **KUADRILEN ARTEKO JOKOAK** eta jarraian **KALEJIRA** herrian zehar **JUN DA JO** txarangak giroturik.

23:00 aurrera **AKERBELTZ** taldearen emanaldia.

Ondoren **OIHANA BEGANA** DJ-aren saioa.

